



## KULTURA ETXEA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

### 1. **LANGILEEN JARDUNERAKO NEURRIAK:**

Edozeinek edozein sintoma duela uste badu edota berarekin hartu-eman zuzena izan duen familiar edota lagunen batek positiboa eman badu, lanean abisatu eta etxean geratu eta osasun zerbitzuek esandakoa egin.

- Eskuak sarritan garbitu, batez ere gauzak elkar banatzen ditugunean. Horretarako langile bakoitzak gel hidro-alkoholiko pote bat izango dugu, lanerako eta lanean, norberarena izango dena.
- Zuen lan ingurua ondo aireztatuta izan osasun gomendioei kasu eginez.

**1'5 metro**



- Gure arteko hartu emanetan:
  - o Distantziak mantendu.
- Maskarila erabili:

*Maskarilen erabileran inguruko azken araudia: EHAA 2020-07-17//2784*

1.3.– Maskarak erabiltzeko derrigortasuna.

1.3.1.– Pertsonen arteko tartea edozein dela ere, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan, bai erabilera publikoko gune itxietan edo jendearentzat irekita dauden lekuetan, eta espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu daitekeenean. Salbuespen izango dira agindu honetan aurreikusitako kasuak, bai eta COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuak ere.

...

1.3.4.– Derrigor maskara behar bezala erabili behar da, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estaliz.

...

1.3.6.– Establezimendu, espazio edo lokalen titularrek bermatu beharko dute beren espazioetan bete egiten dela betebehar hori.»

- Kultur etxeko arduradunek bermatu beharko dute eskuak garbitzeko gel hidro alkoholikoa eta desinfektatzailea badagoela. Eta ez dagoenean kargatu bakoitzaren aparatuak.



Esp. kodea: 2020AAAA0008

Gaia: UDAL ZERBITZUEN IREKIERARAKO PROTOKOLOA COVID19 DELAKOAREN ONDOREN

## **2. ERAIKINAREN ERABILERA OROKORRA:**

**Komunak:** hauen erabilera zaindua izan behar da eta beharrezko ikusten baldin bada norberak desinfektatzeko aukera egongo da flixflixarekin

### **Erabiltzaileak orokorrean bete beharrekoa:**

- Alkohol hidrogeliko dosifikatzaileak egongo dira solairu bakoitzean (sarrera, 1go solairua, 2. solairua)
- Eraikin honetan jarduera edo ekintza arautu eta baimendutakoak bakarrik onartuko dira.
- Sarreran ezin da jendea egon.
- Eskailerak erabili. Igogailua behar izatekotan, banan-banan erabili.
- Dagoen araudia bete beharko da, maskarilak eta distantziei dagokiena zein jarduera zehatzetarako ezarrita dagoena.
- Kultur-etxeako arduradunek esaten dutenari kasu egin beharko zaio. Edo dagokion ekintza edota jardueraren arduradunari.

### **Ordutegi orokorra:**

+ LIBURUTEGIA: astelehenetik ostiralera 17:00-19:30

+ LUDOTEKA: astelehenetik ostiralera 16:15-19:15

(Astelehen-asteazken-ostiral HHko erabiltzaileak)

(Astearte-ostegun LHko erabiltzaileak)

**OHARRA:** gainontzeko jarduera eta ekintza baimenduak beraien ordutegia izango dute eta arduradun edo antolatzaileek, udalaren baimenarekin eta ezarritako protokoloarekin egingo dira.

### **Astean zeharreko erabilera liburutegi eta ludotekatik aparte:**

- Sarreran ezin da jendea egon, pasalekua da, zain egoteko lekua aretoa izango da:
- Aretoa irekita egongo da astean zehar ordutegi honetan:
  - o ASTELEHEN-ASTEAZKEN: 16:15-18:20. Hurrengo ekintza hasi bitartean 10 minutu hartuko dira gela aireztatzeko (ateak irekita) eta horren ardura izango dute kultura etxeako arduradunek.
  - o ASTEARTE-OSTEGUN-OSTIRAL: 16:15-19:30
  - o (Ekintza puntualen batengatik ordutegi hau ez balitz bete ahal izango, ahal den eta azkarren jakinaraziko da.)
- Aretoko aforoa errespetatu beharko da (atean jarriko da) eta distantziak gordetzeko markatuta egongo dira erabili ezin diren aulkiak.
- Aretoa EZ DA JOLAS LEKU BAT.
- Aretoa garbi utzi beharko da erabili ostean.
- Araututako erabilera honetatik apartekoak edota zalantzak ludoteka edota liburutegiko arduradunarekin hitz egingo dira.
- Honen erabilera egokia ez bada egiten itxi egingo da.

### **Kultur-etxearen erabilera herriko taldeentzat:**



Esp. kodea: 2020AAAA0008

Gaia: UDAL ZERBITZUEN IREKIERARAKO PROTOKOLOA COVID19 DELAKOAREN ONDOREN

1. Bileretarako eta materiala gordetzeko gela/lokala izendatuta duten taldeak:

+ ESKULANETAKOAK , ASE, PAPARGORRI, TRIKITIXA, ITUR-ZURI EMAKUMEAK, DANTZA, TXIRRITOLA, GAZTE ASANBLADA, BERTSO ESKOLA, OILOGOR, AZPIKO RACING ETA ORIXOL .

+ Gela bakoitzak aforo bat ezarrita dauka eta errespetatu behar da.

+ Aforoarengatik talde bat ezin bada bere gelan bildu kultur-etxeko arduradunarekin denboraz bilera egiteko beste gela bat ahal den egun eta ordutegian adostuko da.

+ Kultur-etxean ezin baldin bada izan beste udal eraikin batzuetan aukera bilatuko da.

+ Gela txukun mantendu behar eta materiala ondo jasota utzi behar da erabiltzen den aldiro, batez ere erabilera desberdina baldin badu gelak edota konpartitua bada.

2. Bertso gela:

+ Bertso eskola eta Oilgor izendatuko gela izan arren, talde hauek astean zehar gelaren horren erabilera egin nahi baldin badute ordutegiak kontsultatu beharko dituzte klase batzuk emateko ere erabiltzen delako.

**Klaseak ematea kultur-etxean (ingelesa, eskulanak, yoga,...):**

+ Aurrez udalarekin adostu behar dira ordutegiak, egutegiak eta partehartzaile kopurua.

+ Klasean sartu-irtenak zaindu behar dira jendea ez pilatzeko.

+ Egunean ekarri eta eramane behar dute bai ikasleak eta irakasleak erabiltzen duten materiala (salbuespenak eskulanak eta bertso eskolakoak izendatutako gela dutelako).

+ Eserita diren klaseetan, ezin dira aulkiak lekuz mugitu kultur-etxeko arduradunarekin adostu gabe.

+ Klaseetan ezingo da materiala konpartitu.

+ Irakasleak klase bakoitzean nor egon den zerrendatuko du eta gutxienez 15 egunez gorde beharko ditu zerrendak.

+ Klase mota bakoitza osasun sailetik ezarrita dagoen araudiaren arabera emango da.

**3. LIBURUTEGIA:**

- Zerbitzu hauek emango dira:

o Liburu, dvd,...mailegua.

o Liburutegian **kopiak** edo orriak **inprimatu** egin ahal izango dira.

o 3 ordenagailutik 2 erabili ahal izango dira, segurtasun distantziak mantenduz. Eta erabilera bakoitzaren ostean osasun neurri bezala izango duten film transparentea aldatuko du arduradunak.

o Bertako mahaiak erabilgarri egongo dira ikasteko edo irakurtzeko, beti ere arduradunak esaten dituen 12 lekuak, zeintzuk segurtasun distantziak mantenduko dituzten. Erabilera bakoitzaren ostean arduradunak erabilitako lekua desinfektatuko du.

- Liburutegiko arduradunak esaten duenari kasu egin

- Araudiak zehazten duena jarraituta, liburuak entregatu ondoren, 7 egunez egon beharko dira geldirik, hurrengoak berriz maileguan jaso arte.

**AFOROA:** HAUREN TXOKOA 8 UME/3 NAGUSI  
IRAKURTZEKO/IKASTEKO MAHAIK: 12 pertsona (3 mahaiko)  
ORDENAGAILUAK: 2 pertsona

Liburutegiko arduradunaren aurrean ezingo da ilararik handia egon, jendeak kultur-etxetik kanpo itxaron beharko du bestela.

**4. LUDOTEKA:**



Esp. kodea: 2020AAAA0008

Gaia: UDAL ZERBITZUEN IREKIERARAKO PROTOKOLOA COVID19 DELAKOAREN ONDOREN

- Eskolako segurtasun taldeak kontuan izanda zerbitzu honen 5 egunak txandaka banatuko dira.
- Astelehenetik ostiralera 16:15-19:15
  - (Astelehen-asteazken-ostiral HHko erabiltzaileak)
  - (Astearte-ostegun LHko erabiltzaileak)
- Talde edo ume aldaketa ematen denean arduradunak ahal duen heinean mahaiak desinfektatuko ditu.
- Egunean erabiltzen diren jostailuak ondo desinfektatuko dira.
- Kontaktu gehiegi eskatzen duten jostailuak erretiratuko dira.
- Materiala, margoak,... umeak beraien artean elkarbanatzea ekidingo da. Ezin bada, erabili aurretik eta ostean desinfektatu.
- Eskuak garbitzeko gela eskura izango da arduradunak horrela ikusten duenean umeei garbitzeko.
- Umeak eserita mahaietan edota egokitutako 2 jolas gunetan egon beharko dira.
- Arduradunak aterako die jostailuak eta ondoren bere lekura erretiratu.

**AFOROA:** 20 + arduraduna

MAHAIETAN: 16 (4 MAHAIKO)

JOLAS TXOKOAK: 4 (2 TXOKO BAKOITZEKO)

Aretoan ekintza bereziren bat antolatzen baldin bada, eta aforo gehiago behar bada, ludotekaren espazioa erabiliko da, orain arte bezala. Aurretik emango da abisua.

## 5. ARETO NAGUSIA

- Aretoa astean zehar zain egoteko leku izango da aurrez aipatutako ordutegian eta baldintzekin.
- Aretoan asteroko ekintzak ere egingo dira bakoitzari dagokion neurriak hartuz eta udaletxearekin adostutakoak.
- Sarrera eta irteerak ordenatuak izan behar dira eta jendea pilotzea ekidin behar da beti.
- Aretoa ekintza puntaletarako erabili nahi baldin bada eskaera denboraz udaletxean egin beharko da.

**AFOROA:** Erdiko ilarak ezeztatuta eta 2 eserlekuko distantzia izango da oinarri

GRADA GABE: 22 (eserlekuak+7 aulki)

GRADEKIN: 22+16: 38

Hau eserlekuak banan-banan hartuta da, udalak edo udalak edozein eragileri baimendutako ekintzetan, legeak ezartzen dituenak kontuan hartuz, etxe berdinean bizi direnak elkarrekin jarri ditzake era ordenatuan beti ere etxe berdineko multzoen artean 2 eserlekuko tartea gordetzen bada eta tarteko ilarak ezeztatuta jarraitzen badu. Hau egingo balitz, ekintza bukatzean zegoen bezala ordenatu eta utzi beharko da aretoa.

Eszenatokia: yoga edo antzerako espazioa behar duten klaseak emateko 9+1 izango da aforoa.

Bestelakoak: beheko eserlekuak eta eszenatokia erabiltzea nahi baldin bada ensaio edo klase edo horrelako talde gauzetarako aipatutako aforoa igo daiteke beti ere baimendutako eserlekuak bakarrik erabiltzen badira eta eszenatokian distantziak gordetzen badira (kantu tailerra).

## 6. GAINONTZEKO GELEN AFOROAK:

- BERTSO GELA eta OILOGOR: 8+1
- INGELES GELA: 9+1



**Esp. kodea:** 2020AAAA0008

**Gaia:** UDAL ZERBITZUEN IREKIERARAKO PROTOKOLOA COVID19 DELAKOAREN ONDOREN

---

(2 gela hauek klaseak emateko prestatuta daude, beste erabilera baterako, aforoa pasatu gabe, aulkiak lekuz mugitu nahi baldin badira kultur-etxeke arduradunekin adostu beharko da)

- ESKULANETAKO GELA: 10
- GELA TXIKIA (ASE ETA PAPARGORRI): 4
- TRIKITIXA GELA: 4
- ITUR-ZURI EMAKUMEN GELA ETA DANTZA TALDEA: 4
- TXIRRITOLA ETA GAZTE ASANBLADA GELA: 4
- AZPIKO RACING/ORIXOL GELA: 4

Aramaion, 2020ko irailaren 21ean.